

# noaua

**Jendetza batu zen  
errasketaren aurkako  
manifestazioan**

**Ahobiziak,  
trebatzen  
hasten lehenak**

**Igandean,  
gaztetxoentzako film  
proiektzioa Sutegin**



**Xabier Santxo,  
munduko  
txapeldun**

# EUSKAL JAIA '18

## AZAROAK 10, LASARTE-ORIA



09.30 **DIANA**

10.00 **EUSKARALDIAREN LORALDIA** ethez etheko bisitak.

11.30 **KANTU DANTZA JIRA TXIKIA**

14.30 **BAZKARI HERRIKOIA** Okendo Plazan Bazkaloste umoretsua Bea Egizabalekin.

17.00 **"OKERRA JASOTZEA"** Udane eta Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria.

Bitartean...  
Haur eta gaztetxoentzako herri kirolak.  
Haurren pilota jokoa.  
Gazteentzako herri-olinpiadak.

18.00 **ERROMERIA** Ttiriki Ttarrakaren eskutik, Ixak Arruti eta Jokin Irastorza musikariekin batera.

19.30 **TXARANGA, BERTSO ETA PINTXO POTEA** Oaintxe in deu eta Earra bertso eskolarekin.

GAUEAN **MUSIKA** kale eta tabernetan.

\* Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidibarren frontoian egingo dira.



### PARTE HARTZAILEAK:

AER  
TTAKUN  
GAZTE KLUBA  
KUKUKA  
ERKETZ  
OSTADAR

TTIRIKI TTARRAKA  
LANDABERRI GURASO ELK.  
ZABALETA ALZOLAN  
INTZA KIROL ELKARTEA  
SORGIN JAIK  
BEA EGIZABAL  
OINTXE IN DEU TXARANGA  
TXISTULARIAK  
HARRIASOTZAILEAK  
XUMELA  
EARRA BERTSO ESKOLA  
PLAZA DANTZAKO LAGUNAK

### LAGUNTZAILEAK:

LASARTE-ORIAKO UDALA  
BURUNTZ-AZPI ELKARTEA  
INTZA ELKARTEA  
ATERPEA  
LASA FAMILIA

EROSKI  
SUKALDARIAK  
BERASATEGI KA/LEAK  
OGI BERRI

### PINTXO POTEA:

GURE ETXEA  
ARTZAR  
KEBAB  
TRIUMOI  
AVENIDA  
BUENETXEA  
HIRU ALDETA  
INTSAUSTI  
JALGI

### GIROA ERE:

IRAKI  
YOLANDA  
ARKUPE  
ILARGI

Udal eta Foru  
Hauteskundeak

# Lan-saioa

Juan Karlos Izagirrekin



**Azaroak 10**  
**larunbata**  
**10:00-13:00**

Potxoenean

**ehbildu**

### Gai-ordena:

- 1 Legealdiko balantzea eta azken txanpa
- 2 Juan Karlos Izagirrekin kafe-tertulia:  
Zer dago jokoan hauteskundeetan?  
Zeintzuk dira Gipuzkoaren erronkak?
- 3 Herri-programa osatzen hasi
- 4 Alkategaia eta hautets-zerrenda erabakitzeke prozesuaren berri eman

## Albiste iruditzen

# Iruin Astiazaran sagardotegiaren testigantza batu dute 'Sagardogile' liburuan

Gipuzkoako 19 sagardogileren testigantzak bildu dituzte 'Sagardogile' liburuan. Joxemi Saizar kazetariak eta Joseba Urretabizkaia argazkilariak sagardo ekoizpenaren atzean dagoen lana gizarteratu nahi izan dute lan honen bitartez.

Sagardo ekoizleek historikoki egin duten lana aitortzea da liburuaren helburua. Transmisiorako tresna ere izan nahi du, gaur egungo eta etorkizuneko sagardogileei zuzenduta bildu baitira testigantzak.

Urte askoan ekoizle izan direnen bizipenak eta esperientziak, gaur egungo egoerarekin uztartu dituzte egileek, eta elkarrizketatuek egungo tekniken eta azterketa zientifikoaren inguruan duten ikuspegia ere bildu dute.



Juan Ignacio Astiazaran Lasa eta beste 18 sagardogileren hitzekin osatu dute liburua.

Xibarit argitaletxeak ekoiztu du liburua eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dute. Hasierako tiradan 500 ale argitaratu dituzte, eta testigantzak ez ezik, irudiak eta asko zaindu dira. Liburua denetan, sagardotegietan eta Sagardoetxea

Museoan jarriko da salgai. 'Sagardogile' Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin, Sagardo Mahaiarekin eta Fraisoroko Eskolarekin elkarlanean egin da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu du bere argitalpenean.

## Laburrean

### Azaroaren 1ean, Taxi Bus zerbitzu berezia hilerrira

Hilerrira igo edota hilerritik jaisteko zerbitzu berezia 10:00etatik 14:00etara egongo da martxan eta doakoa izango da. San Inazioko autobus-geltokitik irtenango da.

### Azaroaren 10ean batuko dira 1974an jaiotakoak

Azaroaren 10erako antolatu dute afora Saizarren. "Animatu!", luzatu dute gonbita. Izen emateko mezua bidali edo deitu 605 730 816 telefono zenbakira (Josune).

### 1952an jaiotakoaren bazkaria

Abenduaren 2an bilduko dira bazkaritarako Antxeta jatetxean, 14:00etan. Izen emateko deitu azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzioa@noaqua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

**I**rakurri berria dut Zuberora Marcosek egiten dion elkarrizketa luze bat Ben Shahar idazle eta psikologia irakasleari. Harvarden irakasten du eta 48 urte ditu itzal handia duen israeldar maisu honek.

Denok galdetzen diogu geure buruari zoriontasun kontu hau ez ote den utopia huts, ezinezko zerbait. Ez dago zalantzarik: zoriontasunaren loterian alferrik jokatu dugu, ez dago ezta ere emango duen pastillarik. Ze gomendio ematen ditu, bada, psikologia positiboaren irakasle ospetsu eta arrakastatsu honek?

Zuberora Marcos kazetariak galdetzen dio lehenbizi zergatik dagoen hain modan “pertsona guztientzat grial santua” den zoriontasuna. Bere erantzuna: bai, modan dago eta horrela izan da milaka urteetan zehar. Aristotelesek esaten zuen zoriontasuna dela gizartearen helburu nagusia. Gaur hitz egiten dugu gai honetaz tabernetan nahiz egunkarietan. Leku guztietan. Zergatik? Nire ustez erantzuna hau da: lehen aldiz sortu dugu zoriontasunaren zien-

## Zoriontsu izaten ikasi

tzia gizartearen historia guztian. Eta hau jendeari asko interesatzen zaio.

Zer dio, bada, zientzia horrek? Ben Shaharren ustez zentzu orokorrak esaten dizkigun gauzak dira. “Gomendio horietako asko nire amonak ematen zizkidan niri”, eta orain zientziak arrazoi ematen dio.

Hiru giltza zoriontasuna lortzeko: erlazioak zaindu. Hau da agian baldintzarik nagusiena, batez ere teknologiak inguratuta bizi garen mundu honetan. Erlazio errealak landu behar ditugu eta ez hainbeste birtualak. Batez ere gure adolezenteak burbuila digitalean bezala bizi dira eta horrek dohakabeak bihurtzake. Teknologia horiek neurritz edo mesuraz erabiltzen erakutsi behar genieke. Nik hiru seme-alaba dauzkat: iluntzean etxera iristen garenean eta familian gaudenean, ez dago teknologiarik: telefonoak, telebista eta ordenagailuak itzalita daude. Eskerronekoak izan. Frogatuta dago eskerrak maiz emateak zoriontsuagoa eta baikorragoa bihurtzen duela pertsona. Gure sistema immunologikoa ere sendotu

egiten omen dugu jarrera hori agertzen dugun bakoitzean. Askotan pentsatzen dugu dena zor zaigula eta ez da egia. Estimua da nire hitz kuttuna, estimatzen jakitea da zoriontasunera garamatzan bideetako bat. Erritokoak, ohiturak landu: horien artean daude ariketa fisikoak gutxienez hiru aldiz egitea kostatzen ahala kostatzen banoa, nekatuta sentitzen banaiz, berdin dio. Erritual hori ezin dut huts egin. Beste da gauero, oheratu aurretik, nire esker ona agertzea. Horiek bezala, beste erritual asko daude zaindu behar ditugunak. Erritualizatzea, errepikatzea ekintzatxo horiek klabea da zoriontasuna lortzeko. Sokratesek esaten zuen ongia ezagutzea zela ongia egitea. Eta ez. Horretan erlijioek arrazoi zuten: ez da nahikoa kontzeptualki ezagutzea, praktikatu egin behar duzu egunero, uneoro. Bestela ez duzu aldaketarik sumatuko zure bizitzan.

Zein aholku ematen dizkizu gurasoei haurren heziketarako? Lehenbizi, gurasoek ez dezatela egin haurrek berez egin dezaketena. Haurrari asko kostatzen

bazaio zerbait egitea, ez da ezer pasatzen. Lagundu bai, baina bere orde egin ez. Bigarrena: kondiziorik gabeko maitasuna nola ulertu? Maitasun horrek ez du esanahi haurrari nahi duen guztia eman behar zaionik. Neurri garbi batzuk, mugak jarri behar zaizkio. Eta hirugarrenez: gurasoek eredu izan behar dute, beren jarrera egokiez predikatu behar die te haurrei. Egiten dugunak garrantzia handiagoa baitu esaten dugunak baino.

Azken batean zoriontasuna da esfortzuaren eta ongiaren emaitza. Besteei laguntzen eta zintzo jokatzeko saiatzeko garen neurrian lortuko dugu zoriontsu izatea.

Idazle errusiarra Leon Tolstoik (1828-1910) honela deskribatzen du bere zoriontasuna: “daukadana estimatzen dudanean eta ez daukadana ez badut irrikatzen, zoriontsu sentitzen naiz”.

Batzuetan konplikatu egiten dugu zoriontasunaren gaia. “Ongia da egia”, zioen Vicente Ferrer filantropo handiak. Zintzo jokatzeko da zalantzarik gabe zoriontasunaren oinarri nagusia.

Maialen Unanue

Garazi Lizaso Manterola

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Luken Arkarazo

## Hauteskundeei begirako EHBilduren batzarra

2019ko udal eta foru hauteskundeei lotutako mintegia deitu du Usurbilgo EHBilduk azaroaren 10erako. Datozen foru hauteskundeetarako koalizioaren Gipuzkoako zerrendaburu Juan Karlos Izagirre gonbidatu dute hitzordura. Hauteskundeei begira, eta EHBilduk eskuartearen dituen errokei erantzuteko, “be-

har-beharrekoa da herriko EHBilduren komunitatea indartzea, berrakibatzea eta gure sorrerako ilusio eta gogo hura berreskuratzea”.

Hauteskunde-erronkara elkarrekin lotzeko deia egiten die EHBilduk usurbildarrei. Horregatik, azaroaren 10eko hitzorduan parte hartzeko gonbita luzatzen dute. Testuinguru ho-

netan, EHBilduk herriko nahiz Europako hautes zerrenda erabakitzekeo prozesua abiarazi du. Parte hartzeko honako helbidea zabaldu dute: elkarrekin.ehbildu.eu

### EHBilduren mintegia

- Eguna: azaroak 10 larunbata.
- Orduetgia: 10:00-13:00.
- Tokia: Potxoenea.

### ■ Gai zerrenda:

- 1-Legegintzaldiko balantzea eta azken txanpa.
- 2-Juan Karlos Izagirrekin kafe-tertulia: zer dago jokoan hauteskundeetan? Zeintzuk dira gipuzkoarren errokek?
- 3-Herri-programa osatzen hasi.
- 4-Alkatetgia eta hautetszerrenda erabakitzekeo prozesuaren berri eman.

# Pentsio duinen aldarria plazara

**P**entsio duinen aldarriak plazara aterarazi zituen urriaren 25ean hainbat herritar, ondoko argazkian ikus dezakezuenez. Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkar-  
tea eta Aginagako Arrate jubilatuko elkarrekin modu bateratuan deitutako elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan. Modu honetan, Hego Euskal Herriko pentsiodunen plataformak urriaren 18an Gasteizen erabakitakoarekin bat egin zuten. “Gure mobilizazioak eta batasunarekin jarraitzea erabaki dugu gure erantzun gabeko eskaerak lortu arte”.

Usurbil, Santuenea eta Aginagako jubilatuko elkarrekin mobilizazioei jarraipena eman asmo diete aurrerantz ere. “2011 eta 2013ko erreformak berehala deusezteko exijitzen dugu, eta Jasangarritasun Faktorea ezabatzea. Koordainketa eta medikamentazioa deritzonak, indar-



Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkar-  
tea eta Aginagako Arrate jubilatuko taldeek elkarretaratzea egin zuten aurreko ostegunean Mikel Laboa plazan.

## PENSIODUNEN ESKAERAK

**“Prekarietatea  
eta genero arrakala  
gainditze bidean,  
gutxiengo 1.080 euroko  
pentsioa exijitzen dugu”**

gabetzea exijitzen dugu eta Gizarte Zerbitzu unibertsal, publiko eta doakoak eska-

tzen ditugu. Prekarietatea eta genero arrakala gainditze bidean, gutxiengo 1.080 euroko pentsioa exijitzen dugu”. Eta horrekin batera, “dagoen aberastasuna zuzen banatzea”. Pentsio sistema sostengarria dela defendatzen dute, “gutxiengo soldata hobetuz, lan-erreformak indargabetuz, kotizazio-mugak gaituz, ustelkeria eta fiskalitate eza zigortuz”.

# Osasun zerbitzu publikoak, euskalduntzeke

Udal-erri Euskaldunen Mankomunitateak bi urtean behin UEMA kide diren herrietako (tartean, Usurbilgoa) osasun zerbitzu publikoen gainean egiten duten azterketa plazaratu du. Ondorio argia atera daiteke; osasun zerbitzu publikoek euskalduntzeke segitzen dute.

Egun, UEMA kide diren 86 herrietan eremu honetan lan egiten duten 616 langiletik 133 langilek (%21,60) ez du hizkuntza eskakizunik. Euskararen arnagunetzat jotzen diren udal-erri euskaldunen artean ere “herritarrek oraindik ere zailtasunak dituzte askotan, osasun zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko”. Hainbat adibide jarri dituzte, Usurbilgo kasua tartean. Goizuetan, Leitza, Areson, Deban, Aramaion, Zes-



Usurbilen eta beste herri euskaldunetan ematen diren kasuak salatu ditu UEMAK.

toan, Getarian, Aizarnazabal-  
en eta Elgetan gertatu bezala, “pediatra bakarra dute eta ez du hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Beraz, herri horietako haurrek zerbitzua gaztelaraz jasotzea beste aukerarik ez dute”.

## Euskaraz aritzeko eskubidea

Osasun zerbitzuetako langileria bere osotasunean aintzakotzat

hartu duen behaketa honetako datuak eskutan, hobekuntzak egon diren arren, oraindik orain “UEMAko udal-errietako osasun etxe publiko askotan ez da errespetatzen herritarrek euskaraz aritzeko duten eskubidea”. Horregatik, egoera hau iraunkortu ez dadin, neurri zehatzak hartzea eskatzen dute UEMA-tik Osakidetza-

## Gripearen aurkako txertoa jartzeko garaia da

Abenduaren 5era arte iraungo du kanpainak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako 400.000 dosi eskuratu dira eta 1,2 milioi euroko inbertsioa egin da, 30 urte bete dituen kanpaina honetarako. Txertoa, 65 urtetik gorako pertsonei, gaixotasun kronikoren bat dutenei, haurdun direnei eta osasun-langileei hartzea aholkatzen zaie bereziki. Txertatu aurretik, hitzordua eskatu ambulatorioan bertan edo osasun etxera deituta. Hemen telefono zenbakia: 943361543.

## Azaroaren 5ean, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarrekin bi hilean behin odola emateko egiten duen datorren deialdia, azaroaren 5ean, 18:00-20:30 artean ambulatorioan.

eta Osasunbideari. Honez gain, “hezkuntza arloari garrantzia ematea, eta osasungintza publikoa euskalduntzeko neurri ausartak hartzea” galdegiten du UEMA-k. Hurrengo ikasturteko aurrera, medikuntzako eta erizaintzako 140 plaza izango dituzte euskaldunek EHU-n, “baina ez da plazaren erdia ere. Dagoen eskariari aurre egiteko, euskal adarrean plaza gehiago gorde behar dira”.

## Borondate kontua ez, betebeharra

Horrekin batera, ikasketok euskaraz egin ahal izateko ikasleek dituzten zailtasunak salatu ditu UEMA-k. Argi diote, “ez da borondate kontua. Betebeharra baizik. Administrazio publikoak legez dauka zerbitzuak euskaraz eskaintzeko betebeharra”.

# “Mari Xor ipuinak krak egin zidan barruan”

YOLANDA ARRIETAK SAIKERA BAT, ALBUM BAT ETA IPUIN BAT PLAZARATU BERRI DITU

**E**z ditu denak orain idatzi. Baina hala tokatu da. Denonartean argitaletxeak Yolanda Arrietaren hiru liburu plazaratu berri ditu: *Mari Xor* ipuin klasikoaren inguruko albuma (Aitziber Alonso ilustratzailearekin batera osatua), *Klasikoak gaur: Mari Xor* saiakera liburu eta *Bizenta Txiki* haurrentzako ipuina.

Argitaletxearen martxa bat izaten da. Sortzailearena ordea, beste bat. Eta Yolanda Arrietak dagoeneko beste proiektu batzuetan du burua. Gazteen-tzako nobela bat amaitzen ari da egunotan. Gauzak ondo, datorren udaberrian plazaratuko du. Horretaz gain, helduentzako tailerrak eskaintzen ditu eta eskolarik eskola dabil. Lanpetu samar topatu dugu.

**NOAUA! Bernardo Atxagaren eskutik deskubritu zenuen Mari Xor. 1985eko uztailean, udako ikastaro batean.**

**Yolanda Arrieta.** Hala da. Beraz, nola ez da izango berezia niretzat? Iruñeko ikastaro hartara joan nintzenez 22 urte nituen. Bakarrik joan nintzen



Yolanda Arrieta Malaxetxebarria Kabiienen elkarrizketatu dugu.

## IPUINAREN ANALISIA

**‘Klasikoak gaur: Mari Xor’ saiakera liburuan ipuinaren azterketa sakona egin du**

gainera, bakarrik joateko go-go nuelako. Ordurako idaztea nuen buruan. Hitzaldi hartan, ahozko kondaira askoren berri eman zigun Atxagak.

**Orduantxe ari zen Obabakoak idazten, ezta?**

Hala da. Eta horretan ari zela, Iruñera hurbildu zen hitzaldia ematera. Mari Xorren ipuina kontatu zuenean ni liluratuta geratu nintzen. Bete-beteen harrapatu ninduen. Hitzaldia- ren amaieran, kristoren lotsa ematen zidan berarengana joateak. Baina hurbildu nintzen azkenean, eta liburu agortuta zegoela esan zidan. Dena den, berak bazituela lauzpabost ale eta postaz bidaliko zidala bat.

**Esan eta egin?**

Handik hamar bat egunera

edo, paketetxo bat jaso nuen etxean. Gordeta ditut liburua eta idatzi zidan gutuna. Orain, 33 urteren ondoren, Mari Xorren inguruan osatu dudana saiakera bidali diot bueltan.

**Beraz, 1985etik hona bidalgun izan duzu Mari Xor.**

Ipuinak krak egin zidan barruan. Neska ausarta bat topatu nuen, aitari kontra egiten. Ni neu ere garai hartan aldaketa bete nengoelako ziurrenik. Gurasoen etxetik alde egin eta norberaren bizitza egiteko zubi-lan horretan.

Geroago, baliogarri izan zitzaidan antzerkia ikastera joan nintzenez. Baita antropologia ikasten hasi nintzenez ere. Mari Luz Estebanekin batera ipuinean ageri diren rolak eta harremanak landu nituen, eta Joxe Martin Apalategi zenarekin ipuinaren egitura soziala aztertu nuen. Material horrekin guztiarekin, *Gatzaren atzetik Mari Xor* liburu autoeditatu nuen 2005. urtean, Emakunderen laguntzarekin.

Kontatu ere, askotan kontatut duzu Mari Xorren ipuina.

## “Mari Xor ipuina gaurko gaiekin lotzen saiatu naiz”

**NOAUA! Gatzaren atzetik, Mari-Xor izeneko liburu plazaratu zenuen 2005ean. 13 urte geroago, Klasikoak gaur: Mari Xor. Zertan bereizten dira bi liburuak?**

**Yolanda Arrieta.** Eskolan egindako azterketak batu nituen *Gatzaren atzetik Mari Xor* liburuan. Txukundu, besterik gabe. Hura hartu eta garatu egin dut orain. Saiakera berria, ipuina gaurko gaiekin lotzen ahalegindu naiz. Zertarako? Albumaren bitartez, gaur egungo gazteengana kla-

siko bat ekartzeko xedez.

Baina zergatik merezi du klasiko hau gordetzeak? Ba gazteekin lantzeko moduko gaiak, irudiak eta rolak topatu nituelako ipuinaren muinean. Horiek gaur egunera ekartzen saiatu naiz.

**Mari Xorrek aitari aurre egiten dio esanez aita garrantzitsua dela baina bizi daitekeela mundu honetan aitarik gabe. Gatzarik gabe ordea, ez. Eta aitak etxetik botako du Mari Xor.**

Gatzaren metafora ere ga-

rrantzitsua iruditzen zait. Baina metafora hobeto ulertzeko, gatzaren garrantzia esplikatu behar da. Sasoi hartan, gatzak behar beharrezkoa zen jana gordetzeko. Gatzak, beraz, ekonomia zen. Gatzaren ardura hartzea ere bazen ezkontzeko prest egotea. Ipuina inimizio-bidaia bat da eta horri ere heldu nahi nion.

**Inimizio-bidaia bat dela diozu. Gaztarotik helduarora?**

Bidaia horretan pertsonaiek ditugu batetik, euren zere-

ginekin. Eta norbanakoak, bestetik. Mari Xor gazteak zer nahi duen aztertu dut. Bilaketa horretan zerekin egiten duen topo, zer gauditu behar duen, nork jartzen dizkion oztopoak, nork laguntzen dion, zer ikasten duen bidean, nola...

Bestalde, garapen narratibo hori, inimizioarena, asko erabiltzen da gaur egun gidoigintzan, literatura fantastikoan edota zineman. Hori ere azalatu nahi nuen saiakera liburuaren bitartez.

# “Errauskinerekin antzekotasun handiak ditu”

**NOAUA! Mari Xor ipuinak hari asko ditu eta gaur-gaurkoak dira horietako asko.**

**Yolanda Arrieta.** Ez naiz hori pentsatzen duen bakarra orduan? Ipuina aspaldikoa izanik ere, gauza asko gaur egun planteatu eta proposatu daitezke: elkarren premia, norberaren burua ezagutzeko premia... Eta bide horretan gertatzen diren gauzak.

**Gaurko nerabeekin, gaurko gaiak jorrazteko orduan, oso baliogarri izan daiteke. Tailerak eskainiko al dituzu?**

Horretan hasteko asmoa dut. Lekeitioko institutuan saio bat dut lotuta. Erandion ere aterako da. Asmoa da ipuina kontatzea eta ipuinean agertzen diren hainbat kontu aztertzea.

**Munduan ezagunak diren beste maitagarri-ipuina batzuen antza duela diozu saiakeran.**

Mari Xor ipuin klasikoa da baina maitagarri-ipuinen ezau-



Ezkerrean, Mari Xor ipuinarekin osatu duen albuma. Eskubitarra, Mari Xorren inguruan osatu duen saiakera-liburua.

**YOLANDA ARRIETA**

**“Ipuina aspaldikoa izanik ere, gauza asko gaur egun planteatu eta proposatu daitezke”**

garriak ditu. Zenizientaren edo Errauskinerekin ipuinarekin antzekotasun handiak ditu, adibidez. Batean printzea dena, bestean maiorazgoa da. Sin-

bologian ere, parekotasun handiak daude. Batean usoa dena, bestean ahatea da. Eraztuna adibidez, bietan agertzen da. Urritza ere bietan aipatzen da. Elementu asko errepikatu egiten dira. Era berean, munduko beste ipuin batzuekin ere bat dator. Horrek mito bat hausten du. Iraganean ere, jendea bategatik bestera mugitzen zela esan nahi du. Beste abiadura batean mugituko ziren ziurrenik, bai-

na pertsonak bezala ipuinak ere joan-etorrian zebiltzan, mugimenduan.

**Ipuina ahoz transmititu zen belaunaldiz belaunaldi eta gero idatziz jaso zen. Inork ez daki noiz sortu zen Mari-Xor, ezta?**

Joxe Arratibelek idatzi zuen lehen aldiz. Antropologia ikasten aritu nintzenezan berarekin egon nintzen. 70eko hamarkadan atxilotu egin zituzten bera eta komentuko beste kide batzuk. Francoren garaia zen. Bera hain estututa geratu zen, txikitari Ataunen entzun zituen ipuin guztiak idazten hasi zela. Beldurra uxatzeko, nonbait. ‘Kontu zaharrak’ liburuan batu zituen Urrezko orrazia edota Mari Xor. Koadernoak ikusia dut, originala, dena jarraian idatzia. Berarentzat terapia modukoa izan zen. Hiru egunetan idatzi zituen ordura arte berak ahoz entzunak zituen ipuin guztiak. Tentsio-egoera horretan.

## ‘Mari Xor’ albuma, ipuina iruditan

**NOAUA! Geure herentziatik sorturiko maitagarri-ipuina dela dio Mari Xor albumaren kontrazalak.**

**Yolanda Arrieta.** Maiz ahoa betetzen zaigu denoi, “klasikoak berreskuratu behar ditugu” esanez. Ados, baina nola? Gure gazteentzat, gu jaio ginen urtea da iragana. Sinboloak aldatu egin dira, kultura... Dena aldatu da. Klasikoak berreskuratu behar dira klasiko horrek zerbaitengatik merezi badu. Mari Xor garai jakin batean kokatu dugu, baina ‘urbanita’ baten gisa ere irudikatu zitekeen.

**Argiaren alaba-n, adibidez, antzeko ariketa egin zenuen. Bizenta Mogel zena gaur egunerak ekarri zenuen.**

Hala da. Kasu honetan, ne-



Mari Xor ipuinarekin album bat osatu du. Aitziber Alonsorenak dira ilustrazioak.

rabeentzako baino umeentzako dela esango nuke. Opari liburu bat da eta ez du adinik. Hasiberri batek irakurri dezake, testu asko ez duelako. Nerabe batek ere bai, labur dagoelako eta irudietan ere gauza asko agertzen direlako.

## ‘Bizenta Txiki’, haurrentzako ipuina

**NOAUA! Bizenta Txiki aldiz enkargu bat izan da, ezta?**

**Yolanda Arrieta.** Ezagutzen dugun lehen euskal emakume idazlea da Bizenta Mogel. Hori jakin egin behar dute umeek. Eta hura ere umea izan zen. Jakinmina zuela eta osabari esan zionla behin, “eh, nik ere latina ikasi nahi dut, nire nebek bezalaxe”.

**Sasoi hartan ez zen errazago izango.**

Sasoi hartako Markinan, ba esango didazu. Emakumeak ez ziren eskolara joaten. Denon artean argitaletxeoen ideia izan zen. Erdaraz bada ‘Pequeña&Grande’ izeneko bilduma bat, jende askoren biografia modukoak eta album formatuan, lehen



Lehen euskal emakume idazlea izan zen. Bere inguruko ipuina sortu du. Haurrei zuzendua dago.

irakurleentzat idatziak. Frida Kahlorena erakutsi zidan eta Bizenta Mogeekin antzekoa egin behar genuela aipatu zidan. “Nobela egina dago helduentzako (Amarin alaba) baina umeek ere bere berri izan behar dute”. Eta horretan hasi ginen duela bizpahiru urte. Luzatu egin da prozesua eta orain plazaratu dugu. Biografia txiki bat da, azken batean.

## Usurbildarren ekarpenekin osaturiko Herritarron Ituna erakundeetara iritsi da

Erabakitze 2019 arrazoi biltzeko Gure Esku Dagok herriz herri, tartean Usurbilen jasotako ekarpenak Herritarron Itunean bildu eta dokumentua Gasteizko eta Iruñeako parlamentuetara helarazi dute jada. Ordezkaritza politikoei aintzakotzat hartzeko modukoa da Gure Esku Dagoren esanetan “2.019 arrazoi erabakitze” izeneko dokumentua. Gogorarazi dutenez, “herritarron konpromiso eta borondatearen isla den heinean”. Ekaineko giza kateak eta erabakitze arrazoi bildumak, 2019an erabakiaren aroa ireki daitekeela adierazten du Gure Esku Dagoren ustez. “Aukerak badaudela eta herri-



2019an erabakiaren aroa ireki daitekeela dio Gure Esku Dagok.

tarroi dagozkigun ardura eta konpromisoak geure gain hartzeko prest gaudela”. Herritarron Ituna, gureeskudago.eus atarian sartuta irakur dezakezue osorik.

## Tailerra, guraso eta seme-alaben arteko komunikazioaz

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeko tresnak lantzeko antolatuta dute Gaztelekuko eta Ostargi gizarte elkarte hezitzaile Saio Aginakok eta Itziar Aretak. 12-18 urte arteko nerabeen guzuei zuzendua dago, “sokari helduz: nola hobetu guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa?” tailerra. Udalak deitutako saioa, azaroaren 17an, 10:00-12:00 artean Potxoenean. Izena azaroaren 9a baino lehen eman behar da,



Azaroaren 17an larunbata egingo da ikastaroa. Goiz partean, Potxoenean.

doan, Gaztelekuan edo gaztelekua@usurbil.eus helbidera idatzita. Informazio gehigarako: 688 713 838.

### Larunbatean, zientziarekin jolas Aginagan

“Anima zaitezte arratsalde paregabe bat gurekin igarotzera, haur zein heldu primeran pasako dugu eta!!”. Hortxe Aginagako Antxomolantxa Elkartetik larunbaterako (azaroak 3) luzatu dute gonbita. Familia giroan parte hartzeko zientzia tailerrak antolatu dituzte 17:30etan hasita Aginagako ludotekan; zomorro, kimika eta blandinblu tailerrak. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai 3 eurotan.

Azaroaren 17rako antolatu du hurrengo hitzordua Antxomolantxa Elkartek; haurrentzako “Berdin eta desberdin mila ipuin” saioa.

### KzGunea goizez zabalduko dute azaroan

Urriaren 31ra arte 16:00-20:00 artean zabalduko dute KzGunea. Azaroaren 2tik aurrera, 09:00-13:00 artean. Hauek dira eskainiko dituzten hurrengo ikastaroak:

■ Urriak 30-31, 18:00-20:00 “Erosketa seguruak Interneten”.

■ Azaroak 5-16, 9:00-11:00 “Ofimatika tresnak. Libre Office”.

#### Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzguna.net

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA**  
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean  
20 URTEKO ESPERIENTZIA  
645417665  
XABIER Usurbil

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045



# Liburutegien egun jendetsua

## Arantxa Urretabizkaiarekin

Jendetza batu zuen urriaren 24an, Sutegi udal liburutegiak antolaturiko euskarazko irakurketa topaketak. Egund seinalatuan gainera, Liburutegien Egunean. Arantxa Urretabizkaia kazetari eta idazlea gonbidatu zuten. Bere "Bidean ikasia" Hondarribiko alarde parekideari buruzko bere bizipenen inguruko "Bidean ikasia" liburuaz mintzatu zen, Yolanda Arrieta herritarrak bideraturiko saioan. Ikusmina sorrarazi zuen hitzorduak.



Inoizko jende gehien batu zen euskarazko irakurketa topaketan.

Ekitaldi gehiago deitu ditu Sutegi udal liburutegiak azarorako:

### Azaroak 7, asteazkena

18:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, HH4-ko neska-mutilentzat.

### Azaroak 14, asteazkena

18:00 Maite Frankoren ipuin kontaketa saioa, HH5eko neska-mutilentzat.

### Azaroak 28, asteazkena

19:00 Ana Merino herritarrak gidatutako gaztelaniazko litera-

tura topaketa. Edgar Allan Poeren "Cuentos" ipuin liburuko "Los crímenes de la calle Morque, El corazón delator, El tonel de amontillado eta Berenice" ipuinen inguruko solasaldia. Parte hartu nahi dutentzat, liburuak liburutegian eskuragarri.

# Errigoratik Erriberako euskalgintza laguntzeko deia

Gogoan izan, abian dela Errigoraren udazkeneko kanpaina. Nafarroa hegoaldean ekoiztako produktu kutzak eskuratzeko eskaerak azaroaren 14a baino lehen bideratu NOAUA!ra etorrita. Eta tokiko euskalgintza suspertzen lagunduko duzue:

■ Eskaerak: azaroaren 14ra arte NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

■ Bi produktu kutxa aukeran: Kutxa beltza:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: oliba-olio birjina estra, ozpin ekologikoa,

mahats-zuku ekologikoa, orburu bihotzak, piper txorizero mamia, potxak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo piper osoak, melokotoia almibarretan, tomate frijitua.

Kutxa zuria:

Prezioa: 50 euro.

Produktuak: pikillo saltsa, pasta ekologikoa, teilak, pikillo piper osoak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, orburu bihotzak, arroza, zainzuri-krema, piperrada, ozpin ekologikoa, ardo eta kanela pastak,



txokolatzeko cookieak.

**Egutegia**

Urriak 25-azaroak 14: eskaerak egiteko epea.

Azaroak 29-abenduak 4: saskien banaketa.

**Informazio gehiago:** [errigora.eus](http://errigora.eus)

## "Gizalegea", Odolaren Mintzoa taldearen bideoklip berria

"Erbeste behartua salatzen duen abestia". Halaxe aurkeztu du Odolaren Mintzoa taldeak plazaratu berri duen "Gizalegea" abestiaren bideoklipa. *Etsipenaren Aurka* laneko bigarren bideoklipa duzue. Hainbat irudi Usurbilen bertan grabatu dituzte eta usurbildarrak ere ageri dira.

"Distantzia ahots zein herrien arteko elkartasunaz laburtzeko asmoa duen ekimena izan da", adierazi du taldeak sare sozialen bidez. Jasper Nao galiziarrekin elkarlanean gauzatu dute proiektua. "Talde galiziarreko laguna gonbidatu dugu erbestearen gordintasuna salatzen duen abestian parte hartzera", nabarmendu dute Odolaren Mintzoa taldeak. Youtuben duzue ikusgai.

### 'Etsipenaren Aurka' diskoko kantua

*Etsipenaren Aurka*, iaz aurkeztu zuten lan berriko abestia da "Gizalegea".

## Maria Jesus Etxeberriaren argazki erakusketa

Iñaki Agirresaroberenaren ostean, beste herritar baten txanda orain. Maria Jesus Etxeberria usurbildarrak bere argazki erakusketa zabalduko du Sutegin.

### Azaroaren 5etik 16ra

"Eguzkia eta argiaren indarra" bilduma ikusgai izango du kultur etxeko erakusketa aretoan, azaroaren 5etik 16ra, ordutegi honetan:

■ Astelehenetik ostiralera: 16:30-19:00.

■ Larunbat eta igandeetan: 12:00-13:30.

# “Hemen ere posible da erraustegia geratzea, oraindik garaiz gaude”

**H**elburu beraren bueltan indarrak batzeak ematen duen sendotasunaren irudia izan zen urriaren 27an Donostian ikusi genuena. Herritar uholde batek zeharkatu zituen hiriburu erdiguneko kaleak. Adin eta sorterreri ezberdinetako milaka gipuzkoarrek exijitu zuten Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia geratzea, eragile anitzek (Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, GEIS/OEIT, Eguzki, Greenpeace, ERNAI, ELA, LAB, CCOO, EHNE, ESK, STEILAS, HIRU eta “No + Precariedad”) deitutako manifestazioan.

Amarako Mendeurren plazaatik Alderdi Ederrera bidean, etenik gabekoak izan ziren errausketaren aurkako oihuak. Baita Foru Aldundiari, aldarrikatu eta exijitzen ari zirena aintzakotzat hartu eta kasu egiteko deiak ere. “Erraustegiaren auzian milaka herritar elkartu eta Gipuzkoan manifestazio jendetsu eta anitz hau egitea lortu dugu gaurkoan.



10.000 lagun batu ziren aurreko larunbatean Donostian. Argazki gehiago: [noaua.eus/argazkitegia](http://noaua.eus/argazkitegia)

**DEIALDI BATERATUA**  
**Eragile ezberdinen batasunak argi islatzen du, “geroz eta gehiago garelara erraustegiko lanak geratu eta kontratua etetea exijitzen dugunak”**

Zorionak benetan denoi!”

Eragile ezberdinen batasunak argi islatzen du, gogorarazten zutenek, “geroz eta gehiago garelara erraustegiko lanak geratu eta kontratua etetea exijitzen dugunak”.

Arazoi anitz dago horretarako. “Baina bada arazoi bat, gizarte osoak bat egin dezake-

guna. Mahai gainean aukera guztiak jarri behar direlako, agintean daudenak herritarron nahiak kontuan izan behar dituztelako eta inposaketarik ez dugulako onartzen, erraustegia gelditu orain! Kontratua eten!”, aldarrikatu zuten Alderdi Ederretik, bertaratu ziren milaka gipuzkoarren txalo artean.

## “Gipuzkoarren etorkizunak merezi duelako”

Erraustegiko lanak eta elkarbizitza zein ingurumenaren txikizioa geratzeko ordua dela gogorazi zuten. Osasuna eta bizitza herritarrona dela eta hauen gaineko erabakitzeko eskubidea baita. “Aukera ditzaun hondakinen arazoak konpontzeko beste bideak. Osasuna, ingurumena eta herritarren interesak lehentziko dituzten alternatibak jar ditzagun abian! Gipuzkoaren

etorkizunak merezi duelako, erraustegia gelditu!”.

**“Guk ere lortuko dugu”**

Herritarren presioak mundu mailan hainbat txokotan lortu dutela gogorazi digute, erraustegia gelditu ahal dela alegia. “Herritarren presioari esker hainbat lekutan lortu badute errauste planta geratzea, guk ere lortuko dugu! Hemen ere posible da eta oraindik garaiz gaude!”.

## “Erraustea ez den alternatibarik bada”

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren esanetan, “hondakinak kudeatzeko erraustea ez den alternatibarik badago eta hala dela demonstratu dugu Gipuzkoako herri askotan”.

**Gaikako bilketa, alternatibaren oinarrian**

Alternatibaren oinarri oinarrian gaikako bilketa dago, “baina bilketa derri-gorrezkoa eta emaitzaduna

eta ez nolana hiko. Kontratuak iraungo duen 35 urtez Gipuzkoako udalak zorpetu egingo dituztelako, herritarrontzat oinarrikoak diren zerbitzu publikoak, osasuna, hezkuntza, ongizatea eskas-tuz eta murriztuz. Inposatu nahi duguten alferrikako azpiegitura hori gelditzeko ardura eta beharra sentitzen dugulako herritarrok eta geratuko dugulako berriro ere, erraustegia gelditu!”.

# GuraSOS: “Gure haurrak babestu nahi ditugu”

## GuraSOS

“Gure haurrak, gizartearen ongizatea eta etorkizuna babestu nahi ditugulako. Zor diegulako. Adostasun gehien lortzen duen, osasuna eta ingurumena gehien babesten duen eta Europako irizpideak gehien betetzen dituen irtenbidea lortzeko bidean, ezinbesteko pausoa delako. Hitz egin, adostu eta konpontzeko lehen urratsa delako. Gipuzkoarentzat beste etorkizuna nahi dugulako, herritarrak kontuan izango dituen, aukera guztiak baloratuz erabakitzea ahalbidetuko duena. Gipuzkoa osasuntsuago eta demokratikoagorako inoiz ez delako berandu, erraustegia geratu!”

## OEIT

“Erraustegia gure osasunerako arriskutsua dela ikusten dugu. Hondakinak kudeatzeko modu osasuntsuagoak badira, eta azken finean, gure esku dago, erraustegia behar ez izatea. Horregatik diogu, erraustegia gelditu!”

## Gipuzkoa Zutik

“Erraustegiaren proiektuaren atzean ustelkeria kirats izugarria dagoelako eta euskal



“Gipuzkoa osasuntsuago eta demokratikoagorako inoiz ez delako berandu, erraustegia geratu!”, GuraSOSek manifestazio amaieran aditzera eman zuenez.

erregimena deitzen diogun mafia horren sinbolo delako, erraustegia gelditu! Klima aldatu beharrean, sistema aldatu nahi dugulako erraustegia gelditu! Eta azkenik, minetik eta elkartasunetik, Ainhoa Intxaurrandieta eta Iñaki Errazkinen kontra Asensio eta Olano hauekin izaten ari diren jarrera lotsagarriagatik. Herritarrontzat kaltegarri den erraustegi bat gelditzea inoiz ez delako delitu izango, Iñaki eta Ainhoa denok garelako eta orain beraiei zor diegulako erraustegia gelditu!”

## ELA, LAB, CCOO, ESK, STEILAS, EHNE, HIRU sindikatuak

“Langileok ere erraustegiaz erabakitzeke eskubidea dugulako, diru publikoaren pribatizazioagatik, banku eta enpresa handien eskuetan geratzen delako gizarte politiken kaltetan. Alternatiba badago; hondakin kudeaketa iraunkorra, zero zabor helburuarekin. Oraindik garaiz gabilta erraustegia gelditzeko!”

## Ernai

“Kutsatzen duten proiektu txikitzaileak nahi eta behar ez dugulako. Ustelen mesedetara negozio zikina egin eta haien poltsikoak betetzeko soilik eraiki nahi dutelako. Eta herritaron hitza errespetatu beharrean, urteetako zorra eragingo duen makroproiektu bat inposatu nahi digutelako, erraustegia gelditu!”

## Greenpeace

“Badaude soluzioak hondakin kudeaketa arduratsu eta iraunkorarentzat, konponbide hobeak dira gainera, bai ikuspegi ekonomiko, ingurumen edo osasun ikuspegitik begiratuta ere. Erraustegiak ez dira eraginkorrak eta baliabideak suntsitzen dituzte. Greenpeacek erraustegiari ez!”

## ‘No + precariedad’ elkartea

“Erraustegia ez da hondakin kudeatzeko irtenbidea, Europak markatutako birziklatze eredia lortzeko oztopo nagusia bilakatuko da. Erraustegiak ez du hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzea konpontzen. Erraustegia gera dezagun!”

## Babes kutxak salgai

Hitzartu prozesua diruz laguntzeko, GuraSOS-ek salgai jarri ditu jada 10 eurotan, urriaren 7an Usurbilgo frontoian eginiko ekimenean haurrek sortutako marrazki eta hitzekin apaindutako babes-kutxak. Barruan gaileta goxoak eta Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusiari zuzenduriko postal bat du idatzia. Honela dio: “Gure haurren begiradak berritzen du itxaropena guregan eta

goizero sinestu arazten digute ez dela berandu. Inoiz ez dela berandu Gipuzkoa osasuntsuago baten alde egiteko”.

“Haurrak, ingurumena, elkarbizitza, etorkizuna... Gipuzkoa” babestuko duten kutxak Donostiako manifestazioan jarri zituen GuraSOS-ek salgai. Aurrerantzean eskuragarri izango dira baita beste hainbat salmenta puntuetan ere. Informazio gehiago: gurasos.org



Salmenta puntu ezberdinetan eta gurasos.org web orrian eskura daitezke.

# Ahobiziak, trebatzen hasten lehenak

**T**rebakuntza fasean da Euskaraldia Usurbilen. Fasea hizketarako gogoz abiatu zuen aurreko astean, jada Euskaraldirako izena emana duen Ahobizi talde batek, azaroaren 23tik abenduaren 3ra ospatuko den ekimena prestatzen hasteko Potxoenean egin zuten lehen tailerrean.

Datorren Euskaraldian Ahobiziek izan ditzaketan arazo eta korapiloak askatzen ahalegintzea zuen helburu, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) teknikari Jokin Urangak talde dinamika bizi eta arinarekin bideraturiko tailer parte hartzaileak.

## Datozen deialdiak

■ Urriak 30, asteartea 18:00 Ahobizi eta Belarriprest guztientzako tailerra Potxoenean.



Argazkian, aurreko asteko tailerrean parte hartu zuten herritarrak. Argazkia: Euskaraldia Usurbil.

■ Azaroak 1, asteazkena: Artisautza Azoka egunez, Euskaraldirako izen emate mahaia frontoi inguruan.

■ Azaroak 5, astelehena: 18:00 Eragileekin batzarra Potxoenean.

## Izen ematea:

NOAUA!-ren egoitzan, Potxoenean ditugun eskuorrietan. Bestela emailez edo Euskaraldiak martxan jarritako web orrialdean.

## Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus  
usurbil.euskaraldia.eus  
Facebook: Euskaraldia Usurbil  
Twitter: @EuskaraldiaUsurbil  
Youtube: Euskaraldia Usurbil

# Klima aldaketaren aurkako dekalogoia

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldaketa klimatikoaren aurka apirilean sortutako gazteen foro iraunkorrek praktika onen dekalogoia onartu zuen joan den astean Kursaaletan egin zuten "Millenials eta Klima Aldaketa" hirugarren topaketan. Hitzorduan parte hartu zuen besteak beste, Lanbide Eskolako ikasle talde batek.

Klima aldaketarekiko sensibilizatuak diren herritarrak hezi nahi dira modu honetan, eta Gipuzkoa jasangarriagoa eraikitzeko proiektuetan parte hartzeko gaitu. "Gazteekiko topaketa hau Klima Aldaketaren Aurkako Estrategiarekin batera doan partaidetzazko deliberazio prozesuaren esparruan egin da". Hainbat politika biltzen dituen 'Klima 2050' izeneko Aldundiaren estrategiaren baitan kokatzen da ekimena.



Kursaaletan egin den "Millenials eta Klima Aldaketa" hirugarren topaketan Lanbide Eskolako ikasle talde batek hartu du parte.

Aldundiaren esanetan, politika hauek bat egiten dute, etorkizunean, Zubietako erraus-tegiaren ondoan kokatu asmo duten Gipuzkoako Klima Aldaketaren eta Energia Berriztagarrien Zentroaren xedearekin. Segidan, joan den astean Kur-

saalen onartu zuten dekalogoia:  
1-Murriztu, birziklatu eta berrerrabili.  
2-Auto gutxiago, bizikleta gehiago.  
3-Saihestu alferrikako bilgarriak.  
4-Landatu zuhaitz bat.

5-Itzali telebista, ordenagailua, DVDa,...  
6-Zaindu etxetresna elektrikoak.  
7-Egokitu termostatoa.  
8-Aldatu bonbillak.  
9-Erabili ur bero gutxiago.  
10-Aztertu gurpilak.

# BAZKIDEEEN TXOKOA



NOAUAKO bazkide guztien artean zozketatuko ditugu sari zoragarri hauek, azaroaren 9an



AZAROAREN 11N, IGANDEA  
BLACK IS BELTZA PELIKULA  
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 16AN, OSTIRALA  
"EUSKARALDIRAKO 4 AITZAKIA:  
NAHIA, XABAT, ELI ETA PATXI"  
ANTZERKIA IKUSTEKO  
2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 17AN, LARUNBATA  
OREINA PELIKULA  
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ



AZAROAREN 18AN, IGANDEA  
EME TALDEAREN KONTZERTUA  
IKUSTEKO 2 SARRERA BIKOITZ

## noaua! euskararen aterpe

orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan  
Parte hartzeko aukera izango duzu

(40€ urtean soilik) 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

# Munduko Txapelketa, Xabier Santxo eta Aitor Gorrotxategiren garaipenik handiena

Munduko txapelduna dugu usurbildarra eskupilotan, urriaren 15eko astean Bartzelonan jokaturiko mundu mailako lehiarian, Pagazpe Pilota Elkarteko Aitor Gorrotxategi hernaniarrekin finalera heldu eta azken neurketa garrantzitsu horretan nagusitu ostean. Zorionak! Itzuli berritan elkarrizketatu du Santxo NOAUA!-k.

## NOAUA! Garaipenak zer esanahi du zuretzat?

**Xabier Santxo Sagardia:** Egia esan oso pozik nago. Gorrotxegi eta biok ere maila onean aritu ginen. 10-1 eta 10-4 irabazi genuen. Hasiera izan zen batez ere itzela eta hor hartu genuen abantaila. Guk 10-1 irabazi ostean, atzelaria aldatu zuten aurkariak. Ordezko bat sartu zezaketen. Gero 3-1 galtzen hasi ginen baina 8-4 irabazten hasi eta partida irabaziz bukatu genuen.

## Aitor Gorrotxategi talde kidea,



Bartzelonan jokatu da mundu mailako txapelketa. Pagazpeko bi pilotariak jaun eta jabe izan dira eskuz binakako lehiaketan.

### XABIER SANTXO

**“Pagazperentzat ere garrantzitsua izan da. Oraintxe bertan hiru pilotari gabiltza maila gorenean. Eta bi izan gara mundialean”**

#### Pagazpeko kidea baita pozik?

Bai. Berak ere bere pilota ibilbidea amaitzear ikusten du. Berak horixe eskatzen zidan,

Xabi agian nire azken partida da eta nola edo ahala irabazi behar dugu, egidazu opari hori esaten zidan. Partida bukatzean esan zidan lehen gauza eskerrik asko izan zen. Berarentzat bai izan da hunkigarria eta beregatik pozten naiz.

#### Pagazperentzat ere albiste ona?

Pagazperentzat ere garrantzitsua izan da. Azkenean orain-

txe bertan hiru pilotari gabiltza maila gorenean. Hortik bi izan gara mundialerako hautatuak. Biok gainera finala jokatu eta irabaztea lortu dugu. Klubarrentzat biok garaile izatea pozgarria da.

#### Ohiko jardunera itzuli beharko duzu orain, ezta?

Orain partidak ditut. Mundiala jokatzeko enpresarekin hilabetez eten behar izan dut. Mundu mailako txapelketa hiru urte barru ospatuko da. Esan digutenez, Munduko Kopa Kuban izango da, munduko txapelketarako sailkatzeko balioko duena. Mundiala Miarrizten. Orduan 30 urte izango ditut. Oraindik maila onean egon eta hara joateko aukera izatea espero dut.

#### Itzultzeko asmoa beraz?

Bai, beti ere fisikoki ondo egon, maila eman eta hautatzaileak hara joateko hautatzen bagaitu. Ia berriro halako bizipen bat izateko aukera dugun.

## “Tamalez ezin dugu Euskal Herriarekin jokatu”

### NOAUA! Euskaldun gehiago baziren mundu txapelketan?

**Xabier Santxo Sagardia:** Binaka aritu gara jokatzeko; ni eta Eneko Yoldi aurrean, Aitor Gorrotxategi eta Mikel Beroiz atzean. Ligaxkan hiru talde ginen: tamalez ezin delako Euskal Herriarekin jokatu oraindik, Espainia, Kuba eta AEB.

### Euskal Herriak tamalez ezin jokatu, baina euskal herri-tarrak izango zineten gehienak?

Eskuz bai; binaka, bi nafar



“Binaka aritu gara jolasten. Ni eta Eneko Yoldi aurrean; Aitor Gorrotxategi eta Mikel Beroiz atzean”.

eta bi gipuzkoar. Banaka nafar bat, eta errioxar bat. Pagazpetik bi kide, ni eta Aitor Gorrotxategi hernaniarra.

**Udaberrian Argentinan izan zinen, pilota sustatzen eta hangoak prestatzen. Hain justu egunotako Bartzelonako mun-**

### du txapelketari lotua zegoen bidaia hura.

Hala da. Orduetik tarte honetan saioak bidez grabatzen egon naiz argentinarentzat beraien entrena zezaten. Tamalez, beraien taldean kanpoan geratu zen. Lau ziren beraien multzoan eta hirugarren sailkatu ziren. Finalerdietarako ez ziren sailkatu baina gustura, egindako lanarekin. Beraien helburu nagusia Boliviari irabaztea zen eta irabazi zioten. Gustura. Kubaren kontra ezin izan zuten irabazi.

# “Prestaketa nagusia azken bost hilabeteetan izan da”

**NOAUA! Zure lehenbiziko mundu txapelketa izan da honakoa?**

**Xabier Santxo Sagardia:** Bai. Duela bi urte hasi nintzen Espainiako Txapelketa jokatzeko. Espainiako Txapelketa jokatzeko ez baduzu, ezin duzu mundu mailako lehen parte hartu. Aurreko urtean lehenengo munduko kopa jolas nezakeen. Munduko kopa hori Bartzelonako mundialerako sailkatzeko zen.



Xabier Santxo, Xalaren aurka jokatuako partidaren.

**Urtebete beraz badaramazu Bartzelonako hitzordu honi begira?**

Gehienbat azken bost hilabeteetan izan da prestaketa nagusia. Nutrizionista, dietista bat eta prestatzaile fisiko bana izan genuen. Probak egiten hasi ginen. Printzipioz 13 ginen aurre sailkatuak eta hortik 6 izan gara hautatuak.

**Munduko Txapelketa barrutik nola bizitzen da?**

Printzipioz denak hotel handi batean egon gara, Hiri Olinpikoko hotel handi batean. Gosaltzera jaisten ginen. Partida baguen, bakoitzaren minen arabera, fisioa ere hor genuen, bestela pabilioira joaten ginen partidak ikustera, eta bazka-

ria han ematen ziguten. Ia 400 pertsona biltzen ginen otorduetan. Bazkalostean, siesta txoa. Goizero gosaltzera joan aurretik pisatu behar genuen. Pisua gorantz zihoala ikusten bazuten, kontuz ibiltzeko ohartarazten ziguten. Dena kontrolpean izatea gustuko dute.

# “Ilusioa egingo lidake pilota olinpiar kirol jarduera izatea”

**NOAUA! Egin duzun kontakizunagatik, beste kirol jardueren pareko Munduko Txapelketa bat?**

**Xabier Santxo Sagardia:** Nazioarteko Batzorde Olinpiar lanean dabil etorkizunean, olinpiar jokoetan sartzen duten kirol jarduera hau. 1992. urteko Bartzelonako Olinpiar Jokoetan hala egin zen, baina ordutik ez da ezer egin. Akaso guk ez dugu ezagutuko jolasen gauden bitartean, baina niri ilusioa egingo lidake pilota olinpiar kirol jarduera izatea.



Espainiako Federazioaren izenean jokatu behar izan dute Bartzelonan jokatu berri den Munduko Txapelketa.

**Modalitate ezberdinak daude, eskupilota ere olinpiar jokoan bilakatzeko ahaleginetan da-**

**biltza?**

Eskupilota, frontenis, pala motza, paleta larruz, zesta

punta... Frontoia esparru nagusi gisa hartuta, horko modalitate guztiak.

**“Euskal Herriari oraindik ez zaio parte hartzen uzten”**

**NOAUA! Bi amets betetzea gustatuko litzaizukeela ondorioztatu daiteke. Pilota eta euskal selekzioa Olinpiar Jokoetan ikustea.**

**Xabier Santxo Sagardia:** Bai guztiz. Politena niretzat hori litzateke, euskal selekzioak bertan parte hartu ahal izatea. Egia da horretan ere lanean dabilzala. Nazioarteko txapelketa batzuk antolatu izan direnean aukera eman zaio Euskal Herriari, baina oraindik nazio gisa ez zaio parte hartzen uzten.

**Bide luzea dago oraindik egiteke ezta?**

Bai, bide luzea eta nik uste, selekzio espainiarri ere ez zaiola komeni, eskuz ibiltzen garen pilotari onentsuenak Euskal Herrian baikaude.

**Eta bakarretakoak.**

Bai. Egia da orain, frontball izeneko beste modalitate bat sortu dutela. Hor pilota biguinarekin jolasten da. Txapel-duna orain Mexiko da, gero Frantzia. Espainia pixka bat urruti ari da geratzen. Txinan ere eskolak sortu dituzte. Joko bat sartzekotan, hauxe litzateke Olinpiar Jokoetan errazena sartzeko, herrialde gehiagok lehiatu eta irabazteko aukera izango luteketelako.

**Pozik beraz mundu txapelketan eginiko ibilbidearekin?**

Bai. Egia da zorrotza da. Astero entrenamendua Iruñean, askotan bitan fisioa ere egin behar, probak larunbatetan, eta astetartean. 6 kilo jaitsi ditut azkeneko bost hilabeteetan, beti muskulua galdu gabe, grasa jaisten, garbi jaten. Gero egia da, emaitza onak ateratzen badira, pozgarria da, baina azkenean horren atzean ere lana dago.

# Karena, Aroa Etxeburua Ugartemendiaren proiektu berria

**A**ma eta haurren arteko lotura sendotu eta ondorioz, familia mailako osasunaren zaintza bultzatzeko azken aldian lantzen aritu eta erditzearen proiektua aurkeztuko digu lerootan Aroa Etxeburua Ugartemendiak. Usurbildarrak psikologia ikasketak eginak ditu, psikologia perinatalean dago espezializatua. Prestakuntza prozesu honetan jasotakoa, Karena bere proiektu berriarekin plazaratzen hasiko da laster. Ama izan berri direnak proiektu honen parte izatera animatzen ditu. Haiei zuzendutako zerbitzuak jarri nahi ditu eta martxan; lehenengoa, erdiondoko taldea sortzea.



“Karena etorkizun batean proiektu handiago bat izango da, baina oraingoz erdiondoko talde batekin hasiko naiz”.

**NOAUA! Ama eta haurren arteko lotura irudikatzen du karenak. Lotura hori du ardatz zure proiektuak?**

**Aroa Etxeburua Ugartemendia:** Bai. Izen hori jarri nion, proiektu honen erdigunean jartzen dudalako ama eta haur horren harremana. Karena, haurrak sortu artean biak elkartzen dituen organoa da.

**Psikologia ikasketak eginak dituzu. Eremu zabala izan arren,**

## AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA

**“Karena izena jarri nion, proiektu honen erdigunean jartzen dudalako ama eta haurren arteko harremana”**

**zertan espezializatu argi zenuen.**

Egia esan, zer ikasi edo zer ibilbide profesionaletik jo auke-

ratu behar izan dudanean, oso argi izan dut. Psikologia perinatalean formatzen hasi naiz. Perinatal aroa haurdun geratu aurretik, ugalkortasun prozesutik hasi, haurra izan eta haurrak urtebete inguruko adina izan arte luzatzen da. Ama eta haurrengan dago bereziki zentratua, baina orokorrean familiaren osasunean.

**Formazio horren emaitza da**

**proiektu hau?**

Formazio horren fruitua. Nire lan profesionala hau izango zela planteatzen nuen, baina ez nuen planteatzen 23 urterekin hasiko zenik. Hala iritsi da ordea. Karena etorkizun batean proiektu handiago bat izango da, baina oraingoz erdiondoko talde batekin hasiko naiz. Etor-kizunerako tailer eta zerbitzu gehiago eskaintzea pentsatuta dago.

## “Erdiondoan, ama asko bakarrik sentitzen dira”

**NOAUA! Proiektu hau bakarrik hasi duzu. Nolako izan da orain arte jorratu duzun bidea?**

**Aroa Etxeburua Ugartemendia:** Egia esan, zuk bakarrik proiektu bat sortu eta garatzea ez da erraza. Bakarrik sentitzen zara. Txirrista batean bezala sentitzen naiz batzuetan. Batzuetan oso goian, proiektua ze ona den pentsatzen dut. Beste batzuetan gutxiago sinesten

dut nire proiektuan. Baina beno, sormen prozesuak halakoak dira, ez dira errazak. Pozik nago ordea.

**Arin joan da prozesua?**

Neure buruan urtebetez bazihoan garatzen ideia hau eta orain martxan jarriko dut.

**Karenak irudikatzen duen prozesuaren parekoa izan da beraz prozesua bera.**

Gutxi gorabehera denbora pa-

retsua daramat.

**Erdiondoko taldearekin hasiko zara gauzatzen proiektua. Zer helbururekin planteatzen duzu talde hau Usurbilen?**

Proiektu hau erdiondoko talde batekin erabaki nuen hastea. Hau da prest izan eta martxan jarriko dudana. Talde hau 0-1 urte bitarteko haurrak dituzten amei zuzendua dago. Haien haurrak ere ongi etorriak izango dira taldera. Hel-

burua, amek haien amatasun esperientziak elkarbanatzea litzateke, haien emozioez hitz egin ahal izatea sostengatuak sentitu eta epaiketarik egongo ez den espazio seguru batean. Elkarbanatzea egongo da, beraien artean sarea sortzea, ama asko erdiondoan askotan bakarrik sentitzen baitira. Bestetik, amatasunarekin lotuta dauden gai batzuk lantzen joateko ariketak proposatuko ditut.



# “Erdiondoan dauden emakume guztiak gonbidatzen ditut taldera”



“Badaezpada argitzeko, taldera datorrenak ez du zertan inolako arazo, zailtasun berezirik izan beharrik. Elkarbanatzeko espazio bat da, edozein pertsonari ondo datorkiona”, Aroa Etxeburuak azaldu digunez.

**NOAUA!** Ama izan berri diren emakume askoren kasuan, zailtasunak, beldurrak sortuko baitira, partekatuko ez direnak.

**Aroa Etxeburua Ugartemendia:** Asko epaitzen da amek ze erabaki hartzen dituzten, nola jokatzeko duten. Gizarte honetan amatasuna oso idealizatu dago; ama zorionsua da, bere haurrak asko maite dituena. Gero errealitatea ez da berdina. Batzuk triste sentitzen dira, beste batzuk pozik. Emozio asko pizten dira, oso emozio biziak dira. Zure burua zalan-tzan jartzen du zure bizi etapak. Kezka asko egoten dira.

**Erdiondoko taldeaz gain, aipatu moduan zuretzat haur proiektu zabalagoa da. Etorkizunari begira, ze bide urratzea gustatuko litzazuke?**

Etorkizunera begira, beste hiru zerbitzu planteatzen ditut. Batetik, haurdunaldiko talde bat. Beste bat, formatua ez dut gutziz zehaztua, baina tailer antzekoa, hilekoaren zikloari buruzkoa. Eta aurrerago, psiko-

## AROA ETXEBURUA UGARTEMENDIA

**“Oso osasuntsua da beste zure etapa antzekoa bizitzen ari diren emakumeekin zure esperientzia partekatzea”**

terapia egitea gustatuko litzaidake perinatal garaiaren direnekin.

**Psikoterapiaren esanahia ere oraindik landu beharrekoa izango da.**

Erdiondoko talde hau ere psikologia perinataletik egiten dut, ez da psikoterapeutikoa. Baina psikologiatik egiten dut. Badaezpada argitzeko, taldera datorrenak ez du zertan inolako arazo, zailtasun berezirik izan beharrik. Elkarbanatzeko espazio bat da, edozein pertsonari ondo datorkiona.

**Haurra jaio aurretik bereziki maila fisikoari lotutako laguntza da eskaintzen dena sarri-**

**tan, alderdi emozionala ordea ez da hainbeste lantzen.**

Badut sentsazio hori. Asko prestatzen da erditzea eta hori oso interesgarria da. Orokorrean haurdunaldian ez zaio alderdi psikologikoari hainbeste garrantzia ematen, alderdi hau ez da hain serio artatzen. Batez ere erditu ostean, ez da zaintzen buru osasuna, eta fisikoa bezain garrantzitsua da edo gehiago. Hor hasten den etapan, galduta sentitzen dira asko. Osasun zerbitzuetatik eskaintzen dira zerbitzu batzuk erdiondorako ere, baina nik zerbaitez zabalagoa eskaini nahi dut, denbora luzeagoan eta psikologiatik. Beste herri batzuetan ari dira pixkanaka halako taldeak sortzen. Pixkanaka arlo perinatala zaintzeko ikusgarritasun gehiago bada, baina nahiko gauza berria da oraindik hemen.

**Erdiondoko taldea sortzekotan zara?**

Bai. Emakume batzuk jada izena emanda daude eta gutxiene-

ko pertsona kopurura heltzean martxan jarriko dugu. Edozeinek nirekin harremanetan jarri nahi badu informazio gehiagorako edo izen emateko, web orrian ditu xehetasun guztiak.

## “Osasunaren ikuspuntutik asko aportatzen dio familia osoari”

**NOAUA!** Erdiondoko taldean parte hartu dezakeenari zer esan?

**Aroa Etxeburua Ugartemendia:** Ama izateko moduak anitzak dira eta ama guztiak ongi etorriak izango dira gure taldera. Erdiondoan dauden emakume guztiak gonbidatzen ditut taldera, behintzat probatu dezatela esperientzia. Oso osasuntsua da beste zure etapa antzekoa bizitzen ari diren emakumeekin zure esperientzia partekatzea.

**Askotan esperientziok bakar-dadean bizi baitira.**

Ordu asko pasatzen dituzte bakarrik erdiondoan dauden ama askok, etxean beraien haurrekin eta sare hau sortzeak asko laguntzen du.

**Ama eta haurren arteko lotura hori sendotuko du proiektu honek?**

Hori da Karenaren helburua. Garai horretan dauden emakumeak elkarrekin jarri, beraien artean sare bat osatu, esperientziak elkarbanatu eta lanketa txiki bat egin. Osasunari begira asko aportatzen dio bai amari, haurrari eta familia osoari.

**Informazio gehiagorako:**

karena.eus  
info@karena.eus  
634 453 333

# Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiak %110etik gorako gaindimentsionamendua du

Gogoan izango duzue, berriki Espainiako Kontu Auzitegiak garai batean Zubietan eraiki nahi zen erraustegia gaindimentsionatua zegoela aitortu zuen. Egun eraikitzen ari direna ere hala dago. Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiak %110etik gorako gaindimentsionamendua du.

Hala adierazi zuen GuraSOS-ek urriaren 23an Donostian eginiko agerraldi bidez. Hitzartu prozesuaren baitan adituekin osaturiko mahai teknikoak Gipuzkoako Hiri Hondakinen Planaren erredakzio betean da. Sei fase dituen lanketa honetako lehen bietan bildutako ondorioak aurkeztu zituzten hedabideen aurrean.

Ondorioa, aipaturikoa. %110etik gorako gaindimentsionamendua du Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiak. “Tamaina horretako gaindimentsionamendua eskandalaria da, erraustegiaren eraikitzea eta zerbitzu lanen 1.000 milioi euroko gastua gipuzkoarrok 35 urtez hondakinen tasaren bi-



Hitzartu prozesuaren baitan, adituek osaturiko mahai teknikoak lehen bi faseak osatu ditu. Lanketa horren ondorioak plazaratu ditu GuraSOS-ek.

## GURASOS

**“Erraustegiaren eraikitzea eta zerbitzu lanak 1.000 milioi euroko gastua eragingo die gipuzkoarrei”**

dez, ordaindu beharko dugula kontuan hartzen badugu”.

Horregatik berretsi du GuraSOSek, hiri hondakinen kudeaketa plana erredaktatzeko beharra dagoela, gardentasuna, baldintzarik gabeko eztabaida teknikoak eta benetako hirita-

rreren parte hartzea bermatuta.

“Bitartean, kalte gehiago saihesteko erraustegiko lanak berehala geldiaraztea eta kontratua etetea exijitzen dugu”, adierazi zuen GuraSOSek.

## Foru planak, erraustegia justifikatzeko

Gogoan izango duzue, GuraSOSek abian du Hitzartu ekimena, hondakinen kudeaketarekin Gipuzkoan dugun gatazka adostasunez konpontzeko bide-orria diseinatuko duen herritarren parte hartze prozesua. Testuinguru hone-

tan, 2019-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plana erredaktatzen ari da mahai teknikoak, ingeniari talde bat. Sei fasean burutuko duten laneko lehen bi faseen ondorioak aurkeztu zituzten joan den asteko agerraldian, Residua Ingenieria y Consultoria enpresako bi teknikariek.

Hitzartu prozesuaren testuinguruan lanean ari diren adituen esanetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak atzekoz aurrera egin ditu lanak. Hiri hondakinen kudeaketa plana urratsez urrats hausnarketa prozesu batetik erredaktatu beharrean, teknikoak ez den eta aurrez hartutako erabaki politiko batean oinarritu dela Foru Aldundia, helburu argi batekin; aurrez erabakia zuten dimentsioetako erraustegia bat eraikitzea justifikatzeko.

“Horregatik, hiri hondakinen kudeaketaren plana erraustegia eraikitzeko erabaki politikoak justifikatzearekin nahasten da. Eta helburu horri begira, dena balekoa da”, GuraSOS-en esanetan.

## “Erabilitako datuak ezin dira kontuan hartu”

Hainbat zenbaki plazaratu zituen GuraSOS-ek duela astebeteko agerraldian. 2017an Gipuzkoak guztira 329.000 tona hondakin sortu zituela deklaratu zuen Foru Aldundiak. Aldiz, “erraustegia dimentsionatu eta kontratatzeke” baliatu duten prognosiak urte horretan, 200.000 tona gehiago 529.000 tona sortzea aurreikusitako baino 200.000 tona hondakin gutxiago sortu zuela iaz Gipuzkoak. Argi dio GuraSOSek, “erraustegiaren beharra eta bere dimentsionamendua justifikatzeko erabili-

diren datuak ezin dira kontuan hartu”.

Datuak bi eratara interpreta daitezkeela dio GuraSOS-ek. Edo Zubietan eraikitzen ari diren erraustegian “hiri hondakinak ez direnak erraustu asmo dituzte; papergintza industrietako erreusa, Europako araudiak espresuki hiri hondakinen kontzeptutik baztertzen dituzten araztegieta lohiak...”. Edo bestela, hori hala ez bada, “zenbakiak puztutuz dabilta erraustegiaren bideragarritasuna eta gutxieneko birziklapen ehunekoak be-  
tearaztea” justifikatzeko.

Diru-sarreraren desbideratze kasu oso larriaren aurrean gaudela ohartarazten du GuraSOS-ek. Garai batekoa bezala, egun Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia ere gaindimentsionatua dago, eta “egungo egoera hobetzen bada, esponentzialki haziko da jada detektatu den %110eko gaindimentsionamendua”.

## Plana erredaktatzen

Hitzartu ekimenaren baitan, 2019-2030 urte arterako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren erredakzio betean dira. Sei faseetan bidera-

tuko dute lanketa hau. Abendurako amaituko dute. Lehen bi faseetako emaitzak dira aurkeztu berri dituztenak.

1. fasea: Metodologia finkatzea.
2. fasea: Datuen azterketa. Prognosiaren egiaztapena.
3. fasea: Kudeaketa ereduaren definizioa.
4. fasea: Azpiegituren ebaluazioa.
5. fasea: Azpiegitura egokiago eta beharrezkoen determinazioa.
6. fasea: Kudeaketa antolakuntza herrialdean: administrazio eskumenen kudeaketa.

# Zumbathoi arrakastatsua

**D**antza batean jarri ditu herritarrak beste behin, oraingoan helburu solidario baten bueltan. Diabetesa duen alaba txikia zaintzen lagundu eta horretarako espresuki hezitako txakurra etxeratzeak eragingo dituen gastuei aurre egiteko zumbathoi ekimena antolatu zuen urriaren 27an Betisa Carrasco usurbildarrak. Hainbat eragileren laguntzaz aurrera eramandako hitzorduan, zumba dantzatzu laguntza bildu zuen alabarentzat. “Hau dena posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Eskerrik asko denoi!”, adierazi du Carrascok sare sozialen bidez.



“Hau dena posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Eskerrik asko denoi!”. Betisa Carrascok mezu hau zabaldu zuen jaialdiaren amaieran, sare sozialen bitartez.

## Otsondo-Bidarrai mendi-irteera

**G**ogoan izan, Andatza M.K.T.-k azaroaren 11rako (07:30ean autobusez Oiardo Kiroldegi paretik abiatuta) antolaturiko txangoan izen emateko azken egunak dituzuela.

Azaroaren 7a baino lehen 10 euroko ordainketa egin, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321.

Kutxabank: 20955069071068489805.

Oharrak: plaza kopuru mugatua. Janaria norberak eraman beharko du, edaria antolakuntzak.

**Informazio gehiago:**

andatza.com



Azaroaren 11n osatuko dute Otsondo eta Bidarrai arteko ibilbidea baina azaroaren 7a baino lehen eman behar da izena.

### Futbol partidak

#### Haranen

##### Azaroak 1, osteguna

■ 10:00 Infantil mutilak:  
Udarregi Usurbil FT “B”-  
Danena K.E.

■ 11:45 Erregionalak:  
Usurbil F.T.-Intxurre K.K.E.

### Eskubaloï partidak

#### Oiardo Kiroldegian

##### Azaroak 3, larunbata

■ 16:00 Kadete mutilak,  
Territoriala:  
Usurbil K.E.-Gure Auzune.

■ 17:30 Kadete mutilak,  
Euskal Liga:  
Usurbil K.E.-Elgoibar.

■ 19:15 Jubenil mutilak,  
Euskal Liga:  
Usurbil K.E.-Elgoibar.

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balakoa trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m<sup>2</sup> eta garajeak 22m<sup>2</sup>. 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m<sup>2</sup> eta garajeak 50m<sup>2</sup>. Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro<sup>2</sup>, 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbiderekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m<sup>2</sup>ko pisua salgai Aginagan, 65m<sup>2</sup>ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro<sup>2</sup> lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m<sup>2</sup> pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldia, 2 komun, egongela. 11 m<sup>2</sup>- terraza, 8 m<sup>2</sup> trasteleku eta bertan 33 m<sup>2</sup>-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, kalefakzioa. Denberrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukaldia handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, telatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldia eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

## Alokairuan

Pisu bat alokatzen da kaxkoan. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, jangela eta egongela. Igogailuarekin. Tel. 656 783 227

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu.

675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldia, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-letal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Dutxa, ohea, frigora, armairuak, termikoki aisolatua, mahaia,

argiak, aurreko eserlekuak biragarriak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m<sup>2</sup>-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m<sup>2</sup>, ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m<sup>2</sup>ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiaren. [info@restaurantearatz.com](mailto:info@restaurantearatz.com)

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. [kentuene@kentuene.com](mailto:kentuene@kentuene.com)

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. [jm.fandino@catalanaocidente.com](mailto:jm.fandino@catalanaocidente.com). 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke,

asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gaudetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gaudetan. Garbiketa orokorren ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747



**Zorionak Patxi!!** Xuak eta Olatzek belarriak gorritu al dizkitek? Ba prestatu hadi hona etorriko haizenerako!!

**OHARRA:** 2018ko azaroaren 9an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: azaroaren 5ean astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxek garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun he-rritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxek garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketara lanak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxek garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kobrea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624

971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak egunez ratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak

zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesez eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxek garbitu edo

adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutzak). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

#### BESTELAKOAK

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bario sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Mandarina japoniarrak saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 01** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 02** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 03** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 04** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astlehena 05** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 06** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 07** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

## Azaroak 01 - Azaroak 11

**Osteguna 08** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 09** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 10** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda

azaroa

## 01 osteguna

- **Bus taxi zerbitzu berezia hilerrira.** 10:00-14:00 artean. San Inazioko errotondatik abiatuko da.
- **23. Artisau Azoka.** 11:00etan hasita, Usurbilgo frontoian.

## 03 larunbata

- **Zientzia tailerrak familian.** 17:30ean Aginagako ludotekan. Sarrerak bertan salgai, 3 eurotan.

## 04 igandea

- **Haurrentzako zinea: "Orm elurretako erresuman".** 17:00etan Sutegin. Sarrerak: egunean bertan, 3 euro. LH-ko ikasleei zuzendua.

## Igande honetan, gaztetxoentzako film proiektzioa Sutegin

Bueltan dator haur eta gaztetxoentzat antolatutako euskarazko zine zikloa. Azaroaren 4tik aurrera, lehen igandeetan filmak proiektatuko dituzte 17:00etan hasita Sutegin. "Orm elurretako erresuman" izeneko filma eskainiko dute igande honetan.

Elurretako Erregina garaitua izan da, eta hotz-egunak amaituta, trols-ak bakean eta askatasunean bizi dira. "Orm trol horietako bat da; baina atsekabetuta dago, Erregin maltzurra garaitzeko funtsezkoa izan arren, merezitako aitortzarik jaso ez duelako. Orm-ek heroia izan nahi du, eta garaipenaren kontakizuna gezur txikiekin puzten hasten da eta bere burua eskaintzen du printzesa erreinutik libratzeko eta, bide batez, inoiz izan ez den herria bihurtzeko", filmaren sinop-



"Orm elurretako erresuman" izeneko filma eskainiko dute igandean.

sian irakurri dugunez.

### Azaroak 4 igandea

- Ordua: 17:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sarrerak: egunean bertan 3 eurotan.
- Nori zuzendua: LH-ko ikasleei.
- Iraupena: 80 min.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza G.E.

## Ostegun honetan, Artisau Azoka

Frontoian hogeita hamar postu izanago dira: bitxigintza, larrugintza, egur lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Baserri giroko azoka ere egingo da, eta txorizo eta taloa jateko aukera izango da". 11:00etan hasita, frontoian. Antolatzailea: Aitzaga.

## Larunbatean, zientzia tailerrak Aginagan

Zientzia tailerrak familian: zorroak, kimika eta blandinblu tailerrak antolatu ditu Antxomolantxa elkarteak. "Anima zaitezte arratsalde paregabe bat gurekin pasatzen, haur zein heldu primeran pasako dugu eta". 17:30etik aurrera Aginagako ludotekan. Sarrerak: bertan salgai 3 eurotan.

### Datozenak

#### Euskaraldia, batzarra Potxoenean

Euskaraldira begira, eragileekin batzarra deitu du Usurbilgo batzordeak.

- Azaroak 5 astelehena, 18:00.
- Tokia: Potxoenea.

#### Astelehenean odol ematea anbulatorioan

- Azaroaren 5ean astelehena, anbulatorioan.
- Orduetgia: 18:00-20:30.
- Tokia: anbulatorioa.
- Antolatzailea: Usurbilgo Odol Emailen Elkarte.

#### Informazio gehiago:

www.gotatanta.com  
943 317 091

#### Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa Sutegin

- Azaroak 7 asteazkenean.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Sutegi udal liburutegia.
- Nori zuzendua: HH4-ko neska-mutilentzat.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

## ARRANDEGIA PELLO

ORDUTEGI BERRIA:  
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA  
9:00-13:30  
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA  
17:00-19:30  
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

*Patxi*  
Patxi  
Jatetxea  
· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi-euskadnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A  
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio URRUZOLA**  
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astesvain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROSZTEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

**J. R. IBARGOEN S.L.**  
USURBIL

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen.arozzgi.net jr.ibargoen@arozzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri Arrain**  
Iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO MANPARAK  
· KONFINDATZAZKO GREMIOAK · KOMUNENKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**ventamix**

· LEIHOAK NEURRIRA  
· BARANDILAK · ALUMINOA-PVC

943 59 32 58 600 80 30 05  
info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL

**KONTZERTUA** "GALERAK DISKAREN AURRERAPENA"  
azaroak 10, **LARUNBATA**, 22:00 Suteqi **SARRERAK\***

**ANTZERKIA** "Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi"  
azaroak 16, **OSTIRALA**, 19:30 Suteqi **SARRERAK\***

**BISITA GIDATUA** "HARRIA HITZ"  
azaroak 11, **IGANDEA**, 10:00 Frontoitik **DOAN**

**KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA**

"Agin Laburu eta Aitor Sarriegi bertsolariekin"  
azaroak 17, **LARUNBATA**, 12:00 Mikel Laboa plazatik **BAZKARI-TXARTELA\***

**PELIKULA** "BLACK IS BELTA" FERMIN MUGURUZAREN  
aurkezpena, azaroak 11, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAK\***

**PELIKULA** "OREINA"

azaroak 17, **LARUNBATA**, 19:00 Suteqi **SARRERAK\***

**SOLASALDIA** "Antton eta Julen Telleria eta Aitziber Garmendia"  
azaroak 14, **ASTEAZKENA**, 19:30 Suteqi **DOAN**

**KONTZERTUA** "EME TALDEA"  
azaroak 18, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAK\***

\***SARRERAK**: Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauako egoitzan. Noauako bazkideek prezio berezian Noauako egoitzan alde aurretik.  
\***BAZKARI-TXARTELA**: Patxi jateixean salgai soilik.



**NOAUA!KO KULTURALDIA 2018**

USURBIL  
AZAROA

